

Roman Irigoienen biografia sentimental laburra

Imanol IRIGOIEN

Roman Irigoien Mitxelena, urte luzeetan Altzako medikua izango zena, Olartzunen jaio zen 1904eko apirilaren 2an. Gurasoak: Jose Antonio eta Teresa.

Aurten, beraz, gure aitaren jaio zeneko mendeurrena ospatzen dugu.

Ospakizun hau dela-ta, EGANeko lagunek aitari buruzko azalpen biografiko bat egitea proposatu zigutenean, harritu egin ginen, berak idatzitako lanak (hitz neurtuetan gehienbat) asmo handirik gabekoak izan zirenez gero: etxe barrurako idatziak gehienak. Hala ere, bere burua asteburuetakoa idazletzat zeukanari poema gutxi batzuk argitaratu zizkioten han eta hemen, berehala ikusiko dugun bezala.

Zortzi anaia-arreben artean (sei mutil eta bi neska) gazteena izan zen Roman, anaia zaharrena baino hogei bat urte gazteago. Haur txikia zelarik hil zitzaion ama eta, halabeharrez, bi arreba gazteen (Maria eta Lesmesen) esku geratu zen haien anaiatxoaz zaintzearen ardura nagusia. Eta hutsune hark, bere ezean eta bere gabezian, maitasunaren handia erakutsi zion. Gainera, nahi baino lehenago handitu zitzaion Romani hutsune hura, zortzi-hamar bat urterekin aita ere hil egin baitzitzaion, umezurtz geratzen zela.

Bere haurtzaroa, bestela, gure herri txikietakoa beste edozein umeren antzekoa izan zen: eskola, jolasa, eliza, familiako giroa... eta, hala, bere garaiko oinarritzko heziketatik eta han eta hemen entzuten zituenetatik (herriko gora-beherak –karlisten eta nazionalisten artekoak, nagusiki–; ipuinak eta herritar xelebreen istorioak

–bertsolarienak, oroz gain, beren bat-bateko ateraldi burutsuekin–; edo I. Mundu Gerrako iruzkinak...), bere nortasuna eta bere mundu sinbolikoa eraikiz joan zen apurka.

Batxilerra Donostiako korazonistetan ikasi zuen, pentsiodun gisa, etxetik kolegiara eta kolegiotik etxerako joan-etorria oinez eginenez. Aitak ez zuen esperientzia hari buruzko oroitzapen txarririk izango, hiru semeok ere kolegio berara eraman baikintuen hamarkada batzuk geroago... Gero, Valladolideko unibertsitatean joan zen, non, estudioak egin ez ezik, futbolean ere aritu baitzen, *Real Unión Deportiva de Valladolid* futbol taldeko atezain (Atotxan partida bat ere jokatu zuen, Errealaren aurka: berrogei urte inguru beranduago, Juanmari, bere seme-alabetan gazteena, arituko zen igandez igande zelai berean jokatzeko); Gaztela eta Leon-go selekzioko atezain titularrak ere izan zen, gainera; gordeak ditugu, bestalde, futbolari garaiko zenbait argazki zein karikatua ere. Pilotan, berriz, txuriz janztera iritsi zen, Oiartzungo kontsejupean, baina utzi beharra izan zuen, eskuetako mina zela-eta. Karrera, finean, Madrilgo unibertsitatean amaitu zuen 1929an. Bi izen ospetsu ikaskideen artean: Pedro Arrupe, medikuntza-ikasketak bertan behera utzi eta jesuita sartu zenarena, eta Severo Ochoa, Nobel sariarena.

Hemeretzi urtekoa-edo zelarik, Benedikta Aranberri Muguruza elgoibartarra –hamasei urterekin Oiartzunera bizitzera etorria– ezagutu, harekin maitemindu... eta, medikuaren beraren esanetan, orduantxe egokitu izan zitzaion loteria ("... *diteken lagunik onena...*", hala dio Romanek bere emazteaz Aita Onaindiari, "1974'gn. *urrillak 17an*", bidalitako gutun batean). Hamazazpi urte beranduago, 1940ko urtarrilaren 17an –San Anton egunean–, ezkondu ziren biok; gudak eta espetxeak atzeratu bazuen ere bi maitaleen uztartzea, ez zuen inola ere galarazi ezkongaiok elizan emango zuten baletza. Ordainean, Benediktak berdinean erantzun zion, eta, senarra hil zitzaionetik, noznahi eta nonnahi aritzen zitzaion eskutitzak idazten beste mundura, "*Roman, sendagille begi-urdin: Benedi naiz...*" hitzokin hasiera emanez.

Bost seme-alaba eduki zituzten: bihiak zaharrenak, Manuel –edo Imanol– eta Roman; gero, bi alaba, Maitere eta Mariarantxa; eta azkenik, Juanmari, gazteena, futbolaria berau ere eta idazle.

Mediku bezala, Erreterian ekin zion lehenik. Gero, Altzan. Handik gutxira, ordea, gerra hasi eta gartzelara eraman zuten, naziona-

lista zelako, eta, horrela, Ondarretako presondegian la bi urte pasatu egin behar izan zituen, guztiz absolbitu zuten arte. Desterrurako mehatxua ere izan zuen, Asturiasko mendietako herri bakarti batera, elurteak eta izozteak noiznahi, baina mehatxu hura ez zen zorionez bete. Jarraian, ezkondu eta *Martilun* jatetxearen ondoko *Donosti-alde* izeneko etxera etorri zen, bertan bizitzera.

Baina, Roman Irigoienek bizi izan zuen gertaerarik mingots, samin eta larrienetakoari atalburu berezi bat eskaintzea merezi duela uste dugu: beste zazpi oartzuarrekin batera, *Auxilio a la Rebelión* edo *rebelión militar* delituz akusatua izan zenekoari. Honela dio, gure aitari buruz, ezarri zitzaion *Causa sumarísima nº 38/1937* delakoaren epaitzak: “*se destacó asimismo por su filiación nacionalista y por el apoyo que prestó a la candidatura de dicho partido en aquellas elecciones...*”, “*... por su profesión (?) y relaciones izquierdistas que frecuentó...*” la bi urte presoaldi prebentiboan igaro eta gero (halako neurriak ez dira, ez, asmatu berriak euskal presoekin!), Epaitegi Militarrak, azkenik, 1938-II-7an, absolbitu egin zituen zortzi oartzuarrok –gure aita barne– epaiketan egotzitako kargu guztietatik; nolanhari ere, *Incautación de Bienes* espedienteak ireki zieten bai gure aitari eta bai epaitutako beste lagun bati ere, “*... dada la posición destacada de ambos en el nacionalismo*”. 1938ko martxoaren 28an irten zen Roman espetxetik, amesgaizto hartatik ihes eginez. (Bitxikeria gisa, hauxe: aitak uste osoa zuen gartzeleratu zuten egunaren biharamunean-edo askatuko zutela, bere burua guztiz errugabetzat jotzen baitzuen; bere uste hura, ordea, guztiz ustela gertatu zitzaion, lehen gaua ez ezik, beste gau asko ere pasatu behar izan baitzituen. Lehen gau hartan ez zuen lorik egin, jakina, eta horrek bere gela (*Celda nº 5 – bajo bezala azaltzen da handik bidalitako gutunetan*) marrazteko aukera eman zion: tamalez galdutzat dugu aitak egindako marrazki hura.

Edonola ere, larriagoak jasan behar izan zituen bere anaietako batek, Mañuelek –neu izan nintzen, hain zuzen, bataiatzerakoan, osabaren izen *onaren* oinordeko–, zeina San Kristobalگو gotorlekuan fusilatu baitzuten frankistek. (Hara zer dioen, hari buruz, aurtengo *Oiartzun 2004*ko urtekariaren 40.orrian, gure lagun den Andoni Lekuonak: “12.- *Irigoien, Mitxelena, Manuel, Exkerrenekoa, Elizalde; harakina; Felisa Mitxelenarekin ezkondua, 4 semeren aita: Jesus Mari, Luis, Xabier eta Iñaki; Heriotza: –Libro 23, de defunciones del*

juzgado municipal de Oiartzun, nº 10–: “falleció en este Valle de Oyarzun (?), el día 13 de noviembre de 1936, a consecuencia de heridas de arma de fuego, según resulta de una comunicación (sic) recibida de la Superioridad”; *guk dakiguna, familian eta inguruan jasotakoa, zera da: Iruñeko San Kristobal fuertean zegoela eta handik ateratakoan, beste Oiartzungo gehiago bezala, desagertu egin zela eta familian ez zutela gehiago arrastorik izan. Hara zer dioen Aralar Enziklopediak: “Fusilado el 13 de noviembre de 1936”.*) Bide batez, esan dezagun anaia apaiza ere –Xalbador–, luzaroan erbesteratua izan zela, zeukàn destinatik –Billabonatik– Ávilan galduta zegoen Casillas izeneko herrixkara.

Don Roman –halaxe ezagutzen baitzuten bere garaiko altzatarrek– kristaua zen gogoz eta izatez: esan nahi baita ez zuela kristautasuna apaingarriztat hartu, baizik eta bizitzeko era bat bezala, baita bere lanbidean ere. Hainbeste urteren buruan eta hainbeste gaixoren aurrean ez zuen beti asmatuko, noski, baina bere bezero gehienek aitortuko dizutenez, begi-argia zen diagnostikoak emateko orduan eta, batez ere, gizon zuzena zen... eta gizon serioa, bere umore punttua ere bazuena –zorrotza–,aldi berean: altzatarrek bere dohain horiengatik eta bere iharduera profesional eredu garri bezain luzeagatik eskaini zioten, hain zuzen ere, omenaldia, jubilatuta gero, beren esker ona azaltzearren.

Eta hori gutxi balitz, plaza bat ere eskaini zioten herritarrek *Don Romani*, 2000. urtean, bera bizi izan zen etxetik oso gertu. Kontu horretan zerikusi handia izan zuen Jose Manuel Varonak, *Aitonak* jubilatutako lehendakariak; honela zioen gure aitari buruzko artikuluska batean (*El Mundo*, 2000-IV-10ean): “...tengo un gran recuerdo de personas como Román Irigoyen, un médico de Altza muy querido y que siempre estaba disponible...” Jarraian, berriz, aitari buruz, eta auzoko beste bi kideri buruz ere, hauxe zioen Varona jaunak: “A todos ellos, ya fallecidos, les vamos a poner una calle, porque no les olvidamos y son un gran ejemplo”. *Don Romanen* oinordekoen partez, hemendik gure eskerrona bai berari eta bai halako maitasunez eskainitako oroigarria ahalbidetu zuten guztiei ere.

Besteak sendatzen saiatu bazen ere, makal ezagutu genuen luzaroan. Alde batetik, umetan paratifusa pasatu zuen eta horrek bere arrastoak utzi zizkion giltzurrunetan; bestetik, Ondarretako ego-

naldiak ez zion batere mesederik egin bere urdailletako ultzerari (“... joan diran ogeita bi urte abetan zirikatzeke bestetarako izan ez dedan ‘duodeno’ dala bidez, azkeneko hogei illabetetan sabela bi aldiz iriki bear izan didate...”, hala dio Aita Onaindiari, 1960-III-23an Igorritako eskutitzan), ezta bere loari ere (“Ango eta emengo oiñazea noiznai, gaurik geinetan loarekin burruka bizian, oi ditudan otoitzak amaitu eziñik orduetan...”, Aita karmeldar berari, 1974‘gn. urrillak 17an, bidalitako hitzak hauek). Hala esaten zigun noizean behin etxekoei: “*nik pasatu ditudan gaitz guztiekin medikuntzako gaixotasun-eritasun-sintesi oso bat egin liteke*”... hark ere zerbait jakingo zuen, mediku zenez!

Baina, muga haien gaineratik, ez zen inoiz desesperatu, ez inoiz aspertu izan, euskarri sendo baitzituen sinesmena, etxea eta literaturarako zaletasuna. Horren lekuko dira *Don Romanek* Aita Onaindiari gutun batean idatzitakoak eta azken honek bere *Euskal Literatura* liburuan (1977; V. Tomoa, 59. idazlea: Erroman Irigolien; 315-317 o.) argitaratuak, Altzako medikuak poematxo batzuk ere idatzi baitzituen, liburugilearen aitortpena eta onespenera merezi izan zutenak: “Ni...? *Leengo bidean* –dio aitak–. Leen osasun-ezan errenkura ba’nun, orain, geigo zartu naizenean, ia-ia ez jan –beldurrez, ez gogo faltaz–, ez edan, eta ez erre, zer esan? (Osasuntsuago zegonean lau zigarro erretzen zituen *Don Romanek*, ez bat gehiago, ez gutxiago, *caldo de gallina* deituriko tabako xehe-beltzez maneiatua beti, hori bai). *Doi-doi bixi... Baiñan, ori bai: gustora etxetik ia atera gabe nereen artean eta irakurri eta irakurri...*”

Aita Onaindiak berak haren *Milla euskal-olerki eder* (1954) ezagunean ‘Erroman Irigolienen’ *Nik zer ez egin, zer ez eman...*? izeneko poema (927.; 1076-1077 o.) aukeratu zuen bildumarako, non olerkaria, ezagutzerik izan ez zuen bere amaz bihotz sentiberaz ari den. “*Aurtxo txiki bat nintzala Jaunak / Ama zerura eramane...*” bi bertsookin hasten den olerkiaren atarian hauxe dio karmeldar fraideak: “*Altza’ko sendagile jator onek be ez dausku erbal adi-erazten bere biotz on piña. Ez dogu oraindik ezagun euskal-sailean, baiña neurtitz onetan ezti-ulert-errez ta txukun agiri da. Beraz, onelako lan goxoak egiteko ba-dau zura, ta zura euki ezkerro, lanabasak egin al. Begiz ugari.*”

Karmel aldizkarian zein *Olerti* eranskinean ere argitara eman zion zenbait olerki Santi Onaindiak. Hainbat lan, orobat, bere jaioterri-

ko *Oiartzun* urtekarian azaldu izan ziren, hala nola 1956-59 urteetan. Baina 1976ko urtekariak argitaratu zuen (30-32 o.) gure aitaren lanetan agian ahalegin gehiago eskatuko ziona, Oskar Wilde-ren ipuin batetik 1948. urtean hitz neurtuz sortutakoa: *Gizaundi Berrekoa* izenekoa. Horretarako, *Colección Austral*eko (1945) *El ruiseñor y la rosa – Cuentos – Poemas en prosa* (43-48 o.) nahiz *Biblioteca de bolsillo*ko (1945) *El Príncipe Feliz y otros cuentos* izenpean aurkitzen diren gaztelaniazko bi bertsoak erabili zituen.

Unibertsitate garaian ia galdutako euskara berreskuratzeaz gain, halako lan xumeak idatzi zituen: gizonari aitortu behar zaio, nola ez, eginahalak egin zituela, hori bai gutxienez!

Aipatzekoak dira, halaber, gaztelaniaz idatzi zituen hainbat poema ere, errima asonantez zein kontsonantez, oso estilo klasikoan gehienak –erdal hizkuntzera derrigortuta–, Ondarretako giltzapeko egonaldikoak.

Irakurle porrokatua izanik, bidezkoa deritzogu bere liburutegiaz eta bere liburuez zer edo zer mintzatzeari. *Don Romanek* liburu-bilduma nahiko polita zeukan: medikuntzako zein literaturazko liburuz gainezka zeuden etxeko apalak, bai liburutegian bai goiko ganbaran ere.

Medikuntzari dagokion arloan, liburu asko eta asko zituen gure aitak, gehienak seguraski Madrileko *rastr*o azokan edo inguruko liburudendetan erosiak: karrerako gaiei zegozkienak batzuk, osagarri zirenak besteak. Baziren hauen artean XVIII. zein XIX. mendeko altxor preziatuak ere. Liburu-sorta honen balioaz kontziente izanik, *Don Romanen* oinordekook –emazte eta seme-alabok– Oiartzungo Udalari dohaintzan eman genion 1992ko apirilean. Udalbatzarrak bere eskerrona adierazteaz gain, eta zerrendatu ondoren, Udal Arxibo Historikora eramatea eta era egokian antolatzea erabaki zuen. Guztira 242 dira emandako liburuak: hamahiru XVIII. mendekoak (zaharrena, 1715. urtekoa: M. Bell-en *Tratado teórico y práctico de las úlceras*) eta bederatzi XIX.ekoak. Gainontzeko ia gehienak XX. mendeko lehen laurdenekoak dira; horietatik, izan duen entzuteagatik bat aipatzearren, L. Testut-en *Anatomía humana*-ren lau liburukiko bilduma ederra aipatuko dugu (1922).

Ez zen txikiagoa, inondik ere, literaturari eskainitako liburuen zerrenda. Espainiar klasikoak hain kuttunak izanik (bizitzan hogei bat

aldiz irakurri zuen *Kixote Mantxakoa*), autore askorenak zituen etxean, bai narrazio sailean, bai antzerki edo poesiarenean. Baita egile modernoagorenak ere. Bestetik, euskal literaturaren atalean, aitak bildu zituen liburuak etxekoen jakinminaren pizgarri izan ziren: haiengandik ikasi genituen maitatzen hainbat eta hainbat idazleren lanak, eta hantxe ohitu ginen hainbat izenetara: Lizardi, Orixe, Lekuona, Etxaide, *Satarka*, Loramendi, *Jautarkol*, Aresti...

Literatura unibertsaleko autoreen izenak ere ez ziren gutxi eta bertan aurkitu genituen idazle bikainen aleak: haien bizkarretan irakur zitezkeen Shakespeare-n, Dostoiewski-ren, Chejov-en, Wilde-ren edota Stevenson-en izenak, baita haien obren izenburuak ere.

Liburu-bilduma honi, gure amak etxeko baratzatxoan lurperatutako liburu *politiko* arriskutsu haiek gehitu diezaiokegu...

Bestalde, puntualki jasotzen zituen aitak bere aldizkariak, harpidetuta zegoen neurrian: *Karmel – Oleri*, *EGAN*, *Auñamendi* bilduma osoa... Hasieratik hartu zuen parte, halaber, Aita Plazido Mujikaren hiztegi erraldoiaren finantzaketa proiektuan.

Lanak –edo osasunak– uzten ziotenean, maiz hurbiltzen zen –gu ere askotan eramaten gintuela berarekin– euskal kutsu zeukaten hitzaldi edo ekitaldietara, hala nola, A. Valverde *Ayaldek*, K. Mitxelenak, Yon Etxaidek, Arestik etabarrek Donostian emandakoetara, edo, adibidez, I. Beobidek zuzentzen zuen *Jarrai* Antzerki taldearen emanaldietara...

Aita Onaindiarekin zituenez gain, beste jende batzuekin ere izan zituen harremanak, epistolarrak nahiz pertsonalak: Don Manuel Lekuoanarekin, Barriola doktorearekin, San Martinekin, *Bordarikin*, Mitxelenarekin edo Ayalderekin... Eta idazle eta pintore honen izena aipatu dudanez, esan dezadan, gure aitarekin erreparatu zela San Ignazioaren erretratua egiteko eta Gipuzkoako pertsonaia historikoen galeriara eramateko asmoz, Aurrezki Kutxa Munizipalaren babesean. Baina, lanez gainezka zebilela eta, gure aitak ez zuen txolarterik aurkitu *Ayalderen* estudiora joateko, eta hantxe bukatu zen festa. Azkenean, beste mediku bat izan zen –Hernandorena jauna– Loiola-ko Santuaren aurpegiz antzaldatu zena.

Oroimenaren txirikordatik tira eginez, gure aitaren bizitzako zenbait gogorapen aletzen joango naiz, ordena gehiegirik gabe, erreskandan. Gure haurtzaroko oroitzapen desatseginenetakoa zen etxeko

txirrinak gauetz –guk nahi baino gahiagotan zoritxarrez– esnatzen gintuenekoa: seinale txarra zen hura, txirrinarekin batera, ahots urduriek, baita aiene eta negarrek ere, aztoratzen baitzituzten gure haurtxo-loak. Hain txikiak izan arren, ondo baino hobeto genekien berandu gabe zela *Don Roman* inguruko etxe edo galdutako baserri-rako bidean... oinez, zaldiz, motoz edo autoz... (Gure etxeko txirrin-hots karrankaria hura izan zen beharbada gu, seme-alabok, medikuntza ikasketetatik desbideratu gintuena...).

Ongi gogoratzen gara nola aitak udaberriaren berri ematen zigun urtero-urtero: mediku-ikustaldietatik etxera sartu ahala, sukalderatu, txapela kendu eta... *kri-kri-kri!*, kanta eta kanta jartzen zitzaigun urteko lehen kilkerra gure aitaren buru gainean, gu haurrok txunditurik uzten gintuela. Gero, baso batean sartu, eta letxua eta lore hori haiek jaten ematen geratzen ginen, berriz ere kantuan jarri arte. Solista edo bakarlaria ez ezik, kilker-koru edo orfeoiak izan genituen gerora sukaldean, gauen alaigarri, anaia txikia –Juanmari– koxkortu zitzaigunean... Udaberriaren iragarpena baino areago, eta izenburu *stravinskyarra* parafraseatuz, esan zitekeen udaberriaren *konsagrazioa* berpizten zela urtero-urtero gure etxeko aldarean... Esan dezagun, bide batez, kilkerretan ez ezik, exkaluetan ere laster espezializatu zitzaigula Juanmari: etxeko bainuontzian egiten zigun akuarioa Donostiakoarekin lehian jartzeko modukoa izaten baitzen!

Gogoan dugu, baita ere –anaia zaharrok, bikiok, bederen– nola, urrutiko baserrietako mediku-ikustaldietan, berarekin eramaten gintuen aitak gu biok, joan-etorrian; horrela, *sistema metriko hamartarra*, edo algebrako edo kimikako ikasgaiak –sinboloak eta balentziak– berarekin errepatatzeko modu aristoteliko-peripatetikorik ezin hobea aurkitzen genuen.

Eta euskarazale amorratua zen, euskaldunen artean gazteleraz hitz egitea gaizki ikusten zuena, halako moldez, non guri ere –anaia-arrebol– noiznahi egiten baitzigun errieta gazteleraz mintzatzeagatik. *Euskarazi!*, esaten zigun lehor. Eta guk egin beharko...!

Ezin dugu ahantzi halaber, nola *errazionamendu* garai goibel haletan, aitak, gaixotutakoen genu-analisiak kristal-ontzitxo haletan egiten zituen... gelatxo batean instalatuta zeukan laborategian! Gure harridurazko begiontzat, lilluraz beteriko koloreak –urdin, hori, gorri...– sortzen ziren, sugarraren eraginez, leihotxoaren kontrargian...

Eta gripea, edo bestelako epidemien garaian, nolako ilara luzeak sortzen ziren, aitaren kontsultaren zain zeudenen artean! Metroak ere ez halakoak ordu gorietan...!

Era berean, mutilikozkorretan, Elgoibarko *Sanbartolometan*, aita-rekin esku-pilotan aritzen ginen *Sallobenteko* frontoi itxian, bertako zaindaria zen *Artazo* pilotari ospetsuarekin batera... Gero, gure izerdien ordainsari-edo, *Artazoren* emazte Andresari eskatzen zion aitak atera zezan guretzat gaseosa edo limonada fresko-freskoa. Haiek ziren egunak, haiek!

Zer politikak aitak kartoi-paperez egindako jaiotzak ere! Izan ere, aitak euskal kutsuko etxe eta baserri txikiez hornitzen zituen gure haurtzaroko gabonak. Eta, ezer falta ez zedin, ez ziren falta ez frontoitoixoa, ezta tabakoz eratutako metarik ere... Baita bestelako esku-lan eta marrazkiak ere. Begizko genituen, zinez.

Eta zer esango, aitak niretzat gordetzen zituen hainbat eta hainbat pintore klasiko zein modernoren erreproduzioez, zeinak botika-bisitariek ekartzen baitzituzten! Zorionekoa ni, pintura haien artean!

Maitasunez eta sinpatiaz gogoratzen dugu bere umore eta ironia finak gure arteko solasaldietan –bere idatzietara, gutunak salbu, gehiegia eraman ez zituenak, bestalde–; afektuz, olerkiak idazteko erabiltzen zuen modua: haur txikien erara kontatzen baitzituen bertsoetako silaba eta azentuak... nahiz eta aritmetikarako sen bezeria zuen.

Eta zer esan, aitaren afalosteko irakurketez, eta haren ahots inguratzaileaz! Ai, irakurketa haiek, edonoiz zuzentzen zizkigunak, baita argindarra joaten zenean ere –maiztxo gertatzen zena gure gerraondokoan–! Bai, aitak noiznahi irakurtzen zizkigun Oskar Wilderen ipuinak, Stevenson-en *Moni eta Mani*, euskarazko itzulpenean, edo Txomin Agirrerren *Garaa*, edo *Xabiartxoren* kontakizunak, sutondoko kandelaren argipean... Bihotz samurrekoa izanik, familiako giro epel eta goxoa maite zituen guztiz gain gure aitak. Eta errespetua jartzen zuen gizona bazen ere, gizon serioa, berorikako tratamendua Altzan guztiz zabaldua zegoenean –eta ez berari soilik mediku bezala, seme-alabek ere, oro har, berorika egiten baitzieten, bai gurasoei bai aiton-amonei ere–, hark, aldiz, zukakoa ezarri zigun etxekoel: gu geu izango ginen zuka egiten genion bakarretakoak...

Eta amaitzeko, adieraz dezagun zer-nolako zama kendu zioten aitari, Altzara pediatriako espezializazioa ekarri zutenean: zazpi urte arteko umeak kendu ez zizkioten, bada, hainbeste haur-jaiotzaz arduratu behar izan zuen gizonari! Eta nolako lasaitasuna hartu zuen anbulatorioa nahiz urgentzietako zerbitzuak –igande eta jaiegunetan– funtzionatzen hasi zirenean!

Eta, hala, bere mediku-lan ugarien artean –ez baitzen, ez, ahuntzaren gauerdiko eztula bisitak urruneko baserrietara egitea, edo kontsultak medikuaren beraren etxean pasatzea, anbulatoriorik ez zegoelako!– eta bere zaletasun haien artean, bizitza osoa eman zuen, harik eta udazkeneko egun euritsu batean hil zen arte, 1978-ko azaroaren 27an, hirurogeita hamalau urte zituela.

Anaia-arrebok, aurtengo apirilaren 2an, eta berari hain atsegin zitzaion etxe-giroan, pozik eta maitasunez ospatu genuen aitaren jaio zeneko mendeurrena; orain, ospakizuna bete-betea izan dadin, hau xe besterik ez zaigu falta: datorren urtean, urtarrilaren 21ean, amaren jaitze-mendeurrena anaitasunean eta giro alaitsuenean igarotzea. Hala biz.

Eta aitaren oroigarri gisa, zer hobe Juanmari bere semearen, eta gure anaiaren, poematxo hau hona ekertzea baino, *AHOTS BEGI-URDINA ETA AZAROKO EGUZKIA*ren izenburuarekin aitari berari eskaini ziona (Erein, *Denborak ez zuen nora*, 1991; 12. o.), eta honela dio:

Nik zer ez egin, zer ez eman
zu berriro ikusteagatik,
zure ezpain isilen beroan
hitza egin bait zitzaidan bizi-oinarri,
itzala gorputz duen hitza,
argia hego.

Nik zer ez egin, zer ez eman
zu berriro ikusteagatik,
krisantemo zuriak apaindu zuen
zure begi itxien leihoan
sua egin bait zitzaidan bizi-arnas,
betimina haragi.

Nik zer ez egin, zer ez eman...!

Olerkitxo hau izan liteke, zergatik ez?, Erroman Irigoieneen *Nik zer ez egin, zer ez eman...?* lau ataleko olerkiari erantsitako V. atala, honela itxiko eta osatuko baikenuke seme-alabok gurasoek zabaldu-tako zirkulu poetiko sentimentala...

Bibliografia

Aita Onaindia: *Eskutitzak. Euskal Literaturari buruz* – Gráficas Bilbao – 1974

———, *Milla Olerki Eder* – Karmeldar Idaztiak – 1954

Joan Mari Irigolen: *Denborak ez zuen nora* – Erein – 1991

Oscar Wilde: *El ruiseñor y la rosa* – *Cuentos* – *Poemas en prosa* – Colección Austral – 1945

———, *El príncipe feliz y otros cuentos* – Biblioteca de bolsillo - 1945

Gizaundi-berekoia

(Oscar Wilde'ren ipui batetik, 1948 urtean egiña)

1

Ikastolatik aterata,
arratsalde guzietan,
Gizaundiaren baratzer
aurtxoak joaten ziran.
Baratzea, luze ta zabal,
eder berdingabea zan:
lore polit usaidun asko,
belar biguña danean,
txoritxo alaiak txioka
batetik bestera egan,
ta igali ederrez beteak
zugaitzak udatzenetan...
Gizaundi berekoi gaiztoa
erbestean zan artean
benetako zoriontsuak
bizi ziran aurtxoak an.

2

Baña Gizaundia biurtu
egun batez atzerritik,
eta baratzean jolasten
aurtxo taldea ikusirik
asarrez oiu egin zien:
«Zoazte laixter emendiki
Au nerea da, ta ez det nai
iñortxo emen sartzeriki!»
Aurtxoak, beldur era lotsa,
ezkutatu ziran andik.
Eta nola bidean etzan
autsa ta arria besterik
Berekoia'ren gaiztakeriz
etzuten jolas tokirik:
aurren zoriona amaitu zan
jabea iritxi zanetik.

3

Txori alai, lore politak
bereak udaberriak...
Etorri zanean, apaindu
zitun inguru guziak;
Gizaundiarena ordea
betiko negu gorriak
zigortzen zun; aurtxorik etzan
ta abestu nai ez txoriak...;
aurren alaitasunik gabe
iriki nai ez loriak...
Elurra ta izotza bakarrik
zeuden an pozez betiak.
«Udaberria aztuta zegon
-zion batari bestiak-;
izan gaitezen bada biok
baratzeko nagusiak».

5

Kazkabarra zai zegon nunbait
eta, zarata aundiakin,
lagunak dei egiterako
an zan bere lagunekin.
Eraso eraso gañean
gero ta indar gelagokin,
une batean amaitu zun
ango tella guziekin.
Jabeak, leiotik begira,
asarre biziarekin,
gertatzen zana ikusi arren
iñolaz sinistu ezin:
auzoko baratzak apañak
ta berea negu erdin.
Egunak ontzera, uste zun
berdinduko zala aiekin...

4

Izotza ta Elurra'rekin
Gizaundia'ren negarra:
baratza len ederra bazan,
aurrera guzia igarra.
Au naikoa ez, eta biok
egin zuten deadarra:
«Ipar aizea, ator guganal»
ta etorri zan lparra:
ango aize-txistu ta dana
lurrera bota bearra...
«Au toki goxoa -zioten-,
auxe bai toki ederra;
lagunartea osatzeko
emen balitz lagun zarra...;
deltu dezaiozun berari:
betor, betor Kazkabarral»

6

Usteak erdia ustela izan,
ta arren usteak alperrik.
Udaberria irixten etzan,
ez eta ere udararik...
Udatzenean inguruko
zugaitzen adarretatik,
txuri ta gorri ta mardulak
eunka igaliak txintxilik,
eta Gizaundiarenean
ez ta ere bat bakarrik...
Benaz baratz negargarria
ikusten zana ikusirik:
betiko negu gogorrean
etzan agintzen zuanik,
Elurra, Izotza, Ipar aizea
eta Kazkabarra baizik.

7

Baña goiz batez Gizaundia
lotan zegolarik gelan,
eresi batek esnatzeaz
arrituta geratu zan:
karnabatxo txirulari bat
ari zan leio aurrean;
bañan ain eztia zitzaion
–entzun gabea aspaldian–
ereslarien erregea
izango zala uzte zuan.
Orduantxe kazkabar-otsa
ta aizeana amaitu ziran;
ta lore usai goxo-goxo bat
zeturrela nabaitzean,
jaiki zan ta leiora atera
zalantza utzi bearrean.

9

Baña baratzekeo bazter bat
oraindik atzeratua;
guzia ain polita, ain txukuna,
ta antxe bakarrik Negua;
txoko artan zegon zugaitza
Izotz-Elurrak artua;
bere gañean, len bezela,
Ipar-aizean txistua...
Zugaitz-oñean ikusi zun,
zearo naigabetua,
igo nai, baña txikia izan
da ezin igo, aurtxua.
Adarrak al-zitun guzia
jetxirik, kupiratua,
zugaitzak zion: «aurtxo txiki
igo, igo..., eman eskua...»

8

Baratzera begiratuaz
Gizaundia bai arritu:
arresiko tarte batetik
ziran aur guziak sartu,
ta zugaitz banatara igorik
adarretan aulkia artu;
zugaitzak poza azaldu naiaz
ixtan-patean loratu,
ta beren ostoeekin aurren
arpegiak pallakatu;
txoriak, batetik bestera,
beren egoak zabaldu
ta an zebiltzan ixildu gabe
txio ta txio, alaitsu...
Arrigarria: atzo Neguan
eta gaur Udaberri...

10

Zugaitz-adarrak jetxi arren
ta aurre jarri anka-puntan,
txikia izan, oso txikia,
ta an zebillen eziñean.
Katazka aietan Gizaundiak
aurtxoa ikusi zunean,
zarratada bat nabaiturik
bere blotz barrenean,
«A zer nerekoia izan naizen!
–esan zun bere artean–.
Orain ikusten del zergaitik
zan Negua baratzean;
nik jarriko det, nik, aurtxo orl
zugaitzaren gaiñ-gaiñean;
ta dana irikiaz, aurrera
jolas ditezela bertan».

11

Asmo onenarekin iriki
 zun atea ixil-ixilik
 eta baratzera sartu zan
 aurtxoekin egon nairik.
 Bañan aurrak Gizaundia ikusi
 ta ikaraz danok beterik,
 zugaitzak utzi ta laixterka
 ezkutatu ziran andik.
 Eta baratzera Megua
 etorri zan berrikotik...
 Bi begiak malkoz beteak,
 ezertxo ikusi eziñik
 beste aurtxoak joan arren
 txikiena an zan oraindik
 katazka bizian gañera
 igo naiean... alperrik...

13

Ta Gizaundiak esan zien:
 «Atozte emen jolastera,
 semeak; nere baratzea
 zuentzat izango da aurrera»,
 ta aizkora artuaz, itxitura
 dana bota zun lurrera.
 Gero Gizaundia jarri zan
 aurtxoekin jolastera.
 Ango abesti, ango poza
 ta ibilli gora ta bera...!
 Betiko Udaberria..., lore,
 txori ta aurtxoak batera...
 Jakiña, erriko jendea
 baratzearen urrera
 biltzen zan edertasun ura
 bein ta berriz ikustera

12

Au ikusirik, Gizaundia
 joan aurtxoarengana,
 ta zugaitz gañean jartzea
 izan zun lenengo lana.
 Une artan txoriz ta lorez
 zugaitza bete zan dana...
 Aur txikiak, pozez beterik
 ta azalduaz esker-ona,
 besarkatu ta eman zion
 Gizaundiari laztana.
 Igeska joandako aurrak,
 ikusiz gertatzen zana,
 ausarturik, danok ostera
 biurtu ziran biongana.
 Udaberria-re berriro
 etorri zan aiengana.

14

Jolasean eguna igaro
 ta illunabarra zanean,
 aurtxoak Gizaundiagana
 inguratu ziranean,
 «Zugaitzera Igo dedan aurra,
 nun dezute?», zien esan.
 Danok maite, bai, bañan arren
 laztan goxoa gogoan.
 «Ez dakigu nun dan –erantzun
 zioten aurrak–, joan zan».
 «Etortzeko esaiozute
 berak nai dun guzietan»:
 «Ezin ordea; ez dakigu
 ez nor dan, ez nun bizi dan».
 Gizaundia zenbat samindu
 erantzun au entzutean...!

15

Ikastolatik atera ta
 laixterka estu ta larri
 aurtxoak Gizaundiagana
 inguratzen ziran beti;
 baña txiki maitiena ura
 gelago etzan ikusi.
 Orain, guztiontzat ona-arren,
 txikia gabe ezin etsi...
 «Bera ikustea –zion noiz nai–
 al, neretzat bai pozgarri»
 Orla urte asko igaro ziran;
 Gizaundia, zar ta nagi,
 jolastu ezin, eta aulkitik
 begira aurtxo taldeari,
 «Zuek zerate, zuek –zion–
 baratzeko apaingarri»

17

Izan ere gertatzen zana
 benetan arritzekoa:
 baratzeko txoko batean
 –ura zan ura txokoa!–
 Negu gordiñean, zugaitz bat
 iñun berdin gabekoa:
 lore txuri, urrezko adarrak,
 igali zillarrezkoa;
 ta zugaitz-pean, bai, ura zan
 aur txiki ura..., aspaldikoa!
 Gizaundiak ainbat maitatu
 ta aztu ezin zun aurtxoak!
 Begira zegon, anakak dar-dar
 ta biotzean saltoa;
 gero, laixter, Gizaundia altxa
 ta baratzera an dijoa...

16

Negu gordiñean goiz batez
 Gizaundia esnatu zan,
 ta jazten ta begira zegon
 leioaren barrendikan;
 orain Neguarenganako
 garrota izpirik etzeukan.
 Negua... zer da, Udaberria
 lotaratua baizikan...?
 Negua..., Negua, zer, loreen
 atsedena besterikan...?
 Begira ta begira zegon,
 eta alakorik batetan
 ikusten zunakin txunditu,
 bi begiak zabalikan,
 etzekin an ikusten zuna
 sinistatu zitekean...

18

Pozak eman zion indarra,
 ta pozak kendu ajeak;
 baña inguratu beragana,
 ta une bertan aserreak
 odoltsu arpegia jarri
 ta begietan txingarrak.
 «Norik zauritu zaitu, maiteño?»,
 izandu ziran bere itzak,
 zeren-ta bi iltzez zaurituta
 zeuzkan aurrak eskutxoak,
 eta beste bi iltze zorrotzaz
 zaurituak ankatxoak.
 «Zu zauritzen nor ausartu da?»
 –esan zion Gizaundiak–;
 esaldazu, eman dezaion
 eriotza nere ezpatak!»

19

Ez! –aurtxoak erantzun zion–
 «Maitasunak nau zauritu».
 Au entzuteaz, poz-ikara
 bere barruan nabaitu,
 Gizaundia aurtxo txikiaren
 aurrean belaunikatu,
 ta onela galdetu zion:
 «Baña nor zera zu, nortsu?»
 Irripar goxo zeriola
 aurrak erantzun: «Jolastu
 nintzan, zuk utzita, bein emen;
 jolastu gaur zeruan zu»

.....
 Arratsaldean aur taldea
 zanean ara inguratu,
 zugaitz-pean, lore artean,
 zun Gizaundia illa arkitu.

*Roman Irigoyen Mitxelena
 (1948-Altza)*